



Diruak ez du aberririk

Antton Izaguirre

Herri baten garapenean burujabetza eta erabakitzeko eskubidea nortasun ikurra dira herri hori bertatik eta bertakoan interesen zerbitzura kudeatu nahi denean. Ibilbide horretan, bertako baliabide ekonomikoen kudeaketa funtsezkoa izan ohi da, eta egungo gizarte globalizatu honetan are eta funtsezkoagoa, kapitalismoak ezartzen dizkigun eredu zurrunen morroi eta esklabo izan nahi ez badugu.

Herri baten ekonomia, euskal ekonomia gure kasuan, berezkoak dituen ezaugarriak aintzat hartuta garatu beste erremediorik ez du; nola eta mun-

dializazio prozesu horretan enpresa eta finantza entitate multinazional erraldoien atzaparretan jausi nahi ez dugun.

Oinarritzakoak diren lehen eta bigarren sektoreek, eta bereziki maila txiki eta ertaineko enpresa eta kooperatibek, ezinbestean, bertako finantza entitateekin elkarlana garatu beharra dute. Horretarako, herrialdeetako kutxak edota fusioren bidez sortutako Kutxa-bank tresna ezin hobeak izan zitezkeen, lekuko entitate finantzario gisa, etorkizuneko Euskal Bankua bilakatzeko. Aldiz, Europak eta Espainiako Gobernuak ezarritako ikuspegi uniforma-

tzailleak eta PNV-PSOE-PPren kudeaketak berezko nortasun guztiak ezabatu dizkiote Kutxabanki, funtzio publiko eta soziala galzorian jarri dute eta espekulazio eta pribatizazio bidetik Europako beste edozein banku bilakatzeko arriskuan utzi dute.

Azkenaldian komunikabideetan eza-
gutza eman dituzten iritziei kasu
egiten badiegu, epe oso motzean, eus-
kal erakundeek sortu zituzten kutxen
etorkizunean eragiteko gaitasuna era-
bat gal dezakete, eta, atzera bueltarik
gabe, herri ikuspegiak ekonomia mun-
duan nortasunez aritzeko aukera
behin betiko galduko dugu. •